

<<Euskara Kulturaren Euskal Planean>>

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Kultura Saila - Eusko Jaurlaritza

Zeharkako Lerroa

(Euskarazko alea)

2003ko urria

1. Euskararen egoera soziolinguistikoa
2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia
3. Kulturaren Euskal Planerako oinarrizko irizpideak
4. Lege-garapena
5. Hainbat egitasmo-proposamen

1. Euskararen egoera soziolinguistikoa

Labur bada ere, gaia kokatzeko balio izango digulakoan, euskararen bilakaera soziolinguistikoaren inguruko apunte batzuk ekarri nahi ditugu hona:

- Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, elebidunak gutxiengoa dira lurralde guztietan baina lurraldeen artean badira aldeak: laurdena dira Euskal Herrian (%25,4); zertxobait gehiago EAEn (%29,4); zertxobait gutxiago Iparraldean (%24,7) eta hamarretik bat baino ez Nafarroan (%10,3). Bilakaerari dagokionez, berriz, goiko joerak berretsi ohi dira hiru lurraldeetan: 1991an baino 5 puntu gehiago EAEn; ia 9 puntu gutxiago Iparraldean; eta apenas puntu bat gehiago Nafarroan. Euskal Herrian, batez bestean, garai hartan baino 3 puntu gehiago, EAEko igoerari esker.
- Euskararen transmisioari dagokionez, euskaraz dakitenak lehen hizkuntza euskara izan zutenak baino gehiago dira Iparraldean ez beste toki guztietan. Lehen hizkuntza euskara bakarrik izan dutenak %17,3 izan dira Euskal Herrian, %18,8 EAEn, %25 Iparraldean eta %7,7 Nafarroan. Honako kopuru horiei lehen hizkuntza moduan euskara eta erdara (gaztelania edo frantsesa), biak batera, izan dituztenenak ere gehitu beharko litzaizkieke: %5,1 EAEn, %4,2 Iparraldean eta %6,1 Nafarroan. Hala eta guztiz ere, emaitzak, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, 1991koen oso antzekoak dira eta Iparraldean, berriz, orduan baino askoz okerragoak. Hortaz, azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan familia bidezko transmisioan aurrerapauso ikaragarria egin den arren oraindik gizegi da biztanleria osoan hori antzemateko.
- Euskararen erabilerak zertxobait gora egin du Euskal Herrian, 1991tik 2001era bitartean: euskaraz erdaraz bezainbat edo gehiago hitz egiten dutenak %13,9tik %14,9ra pasatu dira EAEn %15,7tik %18,7ra igo direlako. Nafarroan aldaketarik apenas gertatu den bitartean (%6,1 dira egun eta 1991n) Iparraldean sekulako galera gertatu da (%15,4tik %10,2ra). EAEko igoera berrogeita hamar urte baino gutxiago dituztenen artean gertatu da, batik bat. Euskararen erabilerak gora egin izana zor zaio batetik ohiko euskaldunek erakutsitako leialtasunari eta, nagusiki, euskaldun berriak ugaritu izanari.
- Euskararen erabileraren gorakada Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietan gertatu da; gune soziolinguistikorik erdaldunenak dira, nolana, dinamiko eta aldakorrenak. Erabilera-esparruei dagokienez, berriz, azken hamar urteotan, erabilera publikoak gizarte-erabilerak edota etxeko erabilerak baino gehiago egin du gora.
- Bukatzeko, biztanle gehienak euskara erabilera normalizatzeko neurriak hartzearen alde ageri dira Euskal Herrian. Izan ere, aldeko jarrera dutenak (%45,4) aurkako jarrera dutenak (%20,1) baino bi aldiz gehiago dira Alabaina, lurraldez lurraldeko egoerak oso desberdinak dira: aldekoak erdia baino zertxobait gehiago dira EAEn (%50,2); ez alde, ez aurka daudenen parean dira Iparraldean (%41,7 eta %41,9); baina aurka direnak baino dezente gutxiago dira Nafarroan (%28,5 eta %34,5). Hala eta guztiz ere, Nafarroan alde direnak, gaur, 1991n baino askoz gehiago dira garai hartan, %22,3 baino ez baitziren.

Datuok erakusten digutenez, EAEn elkarren ondoan bizi diren bi hizkuntza ofizialetako bakoitzak ikuspuntu demografikoari, geografikoari eta funtzionalari dagokionez oso ezberdinak diren garrantzi-maila eta erabilgarritasun-maila ditu: gaztelaniak euskarak baino askozaz ere estatus handiagoa dauka; euskara, berriz, gutxienean hizkuntza gutxitua da oraindik ere, nahiz eta azken bi hamarkadetan bere bilakaera oso positiboa izan den.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jasotakoa baieztatuz, aurrera begira ere lehentasunok izan beharko ditugu gogoan gure lana eratzeko:

- Euskararentzat ahal den hiztun oso gehien irabaztea familia bidezko hizkuntza-transmisioaren bitartez, eskolan euskara eta euskaraz ikasiz edota heldu aroan euskara ikasteko aukerak eskura jarritz.
- Euskara eskolan ikasi duten milaka euskal hiztunen hizkuntza-gaitasuna sendotzea, eguneroko bizitzan euskararen presentzia areagotuz; euskararen gizarte-erabilera zabaltzea, finean.

Horri loturik gogora ekarri nahiko genituzke orain urte batzuk Bernardo Atxagak esandako hitzak:

“Hizkuntzak ez du antzik jaboiarekin. (...) Zenbat eta gehiago erabili jaboia orduan eta urrituago eta gastatuago, hitza, ordea, alderantziz. Zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Beste modu batean adierazita hitza biziko bada, nahitaezkoa da errepika, nahitaezkoa da jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen: hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrik galdu egin behar du ura. Esan eta berresan egin behar da hitza, hortik kanpora ez dago bizitzarik, errepika da hitzaren ardatza. Arabiar aldetik etorritako ideia horiek egiazkoak direla denok ikusten dugu berdin, edo hala ikusi beharko genuke behintzat. Izanik, bi hizkuntza mota dituen lur batean bizi gara eta hizkuntza mota horietako baten hitzak oso erabiliak diren partez, bestearenak baino askozaz ere indartsuago eta bizkorragoak dira, horregatik tartekatzen ditu hainbeste erdal hitz Euskadi Irratiarentzat bere etxeko euskara eskas, flakatu eta agonikoan hitz egin beharra daukan pilotariak edo karreristak. (...) Eta zergatik hitz egiten da gazteleraz ikastola askotako patioetan, jar gaitezen adi, entzun dezagun nola hitz egiten duten, nola? loruak bezalaxe, etxean, kolean edo telebistan ikasitakoa berresanez, eta azken kasua jartzeko, zergatik ez zaigu gozoagoa guri hain gazte ez garenoi “cuatro por siete veintiocho” delakoa, “lau bider zazpi hogeita zortzi” harekoa baino?, argitu beharrik ere ez dago, gogoan dauzkagu oraindik lehengo eskolak hango kantu eta kontuak. Errepetizioak bizitza ematen dio hitzari, erabilerraz bihurtzen du”.

Horretarako, beste zenbait neurriren artean, gure etxeetan indarrez sartzen diren eta gure eguneroko bizitzako esparrurik intimo eta pertsonalenetan gure hizkuntza-jarrera hainbeste baldintzatzen duten hedabideetan (telebista, irratia, prentsa, internet,...) euskararen erabilera sustatzera zuzenduriko politika adimentsu eta erakargarriak gauzatu behar ditugu.

2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Agertu berri dugun egoera soziolinguistikoak berretsi egiten du Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren egokitasuna. Bertan honakoxe hau dio:

“Erabiliz zorrotzen den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia...

Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara helduaroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, enpresa-mundurako, aisirako, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarteko bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jotzeko.

Horretarako, euskarazko zerbitzuen “eskaintza” eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteeek bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia-, eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebrietan eskaintzea”.

Ikus daitekeenez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren osagai garrantzitsu zenbait, bete-betean dagozkio kulturagintzaren alorrari, eta beste batzuk, zeharka bada ere, badute loturaren bat.

Gutziz beharrezkoa izango litzateke, hortaz, EBPNn ezarrita dauden helburu-neurriak Kulturaren Euskal Planean ezartzekoak diren jarduera-ildo eta helburu nagusiekin bat etortzea.

Izan ere, nekez uler bailiteke Kulturaren Euskal Plana, bertan ezarriko diren helburuek eta proposatuko diren jarduera-ildoek euskararen egoera (corpusarena eta estatusarena) hobetzeko balioko ez balute. Azken batean, euskararen egoeraren hobekuntza eta bere erabileraren normalizazioa hartu behar ditugu euskal kulturaren ardatz nagusi. Testuinguru horretan ulertu behar da, hain zuzen ere, plan honek euskararen erabilera sustatzearen aldeko neurriak aurreikustea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izanik gure abiapuntu, ikus dezagun, beraz, zein den horren helburu nagusia:

“Euskaraz bizi nahi duten herritarrei, horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea”.

Helburu nagusi hori betetzeko, honako hiru helburu estrategiko hauek daude ezarrita EBPNn:

- Euskara ondorengoetaratzea belaunez belaun eta etenik gabe.
- Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eramatea eta beste erabilera eremu berezi eta garrantzikoetara zabaltzea.
- Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko modukoa izan dadin, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez elikatzea.

Gauzak horrela, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Kulturaren Euskal Plana elkarren osagarri izan daitezzen, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean idatzitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) kulturagintzarekin zerikusirik duten helburu, alor eta neurriak kontuan hartu beharko lirarteke Kulturaren Euskal Planean. Beste modu batera esanda, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartua duten Plan horretan, zuzenean nahiz zeharka, kulturagintzaz esaten dena Kulturaren Euskal Planean jasotzea proposatzen da.

3. Kulturaren Euskal Planerako oinarrizko abiapuntuak

Euskara da euskal kulturaren oinarria. Euskara da Euskal Herriko kultura sortzeko zein komunikatzeko erabili den eta erabiltzen den tresnetako bat, besteak gaztelania eta frantsesa dira. Nolanahi ere, esan behar euskal kultura euskaraz sortzen den kultura dela eta berau dela Euskal Herriko berezko kultura. Hortaz, kultura sortzeko eta komunikatzeko hizkuntza bat baino gehiago bada ere, eta denen artean sortzen badute Euskal Herriko kultura, berezkoa eta berezia Euskal Kultura da.

Euskal kultura eta euskara hain daude elkarloturik, euskal kulturaren geroa euskararen geroaren pentzutuan dagoela esan daitekeela, eta bai kontrakoa ere; euskararentzat etorkizunerako ezinbestekoa baita euskarazko kulturagintzak iraun eta indartzea.

Euskarazko kultur produktuen sorkuntza, produkzioa, azpiegitura-sarea, ahalbide ekonomikoak, merkatua eta Euskal Herrian sorturiko erdal produktuena zeharo ezberdinak dira: bi hizkuntza hauen premiak ez dira berberak. Euskarak gaztelaniaren aldean babes berezia behar du. Gauzak horrela, euskara eta euskararen erabilerarekin zerikusia duen oro ezin liteke geratu, inolaz ere, Kulturaren Euskal Planetik kanpo; marko horretan egin beharreko proposamenetan ezinbestekoa da hizkuntzaren aldagaiaren planteamendua aurrean izatea beti.

Izan ere, EBPNk dioen bezala euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatu behar badizkiegu, behar diren hizkuntza-politikako neurriak abiarazi beharko ditugu esparru orotan; bestela, gurean nagusi den hizkuntzaren (erdararen) aldeko inertzia sozialak eta ekonomikoak bere horretan mantendu ez ezik indartu ere egingo dira.

Bestalde, euskal gizartearen integrazio sozio-kulturala eta nortasuna eraiki eta sendotu nahi badugu, ezinbestekoa zaigu euskararekiko atxikimendua sendotzea, hizkuntzaren ikuspegi integratzaile batetik. Besteak beste, herritarren borondatea eta bizi nahia izango direlako euskararen bizi-indarraren giltza.

Euskarak kulturarekin dituen harremanak, bestalde, mota desberdinetakoak izan daitezke, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia idazteko erreferentziaz hartu ziren hausnarketan artean irakur daitekeenez:

- Batetik, euskaraz egindako kultur ekintzak edo kultur produktuak ditugu, hau da: euskara = kultura hizkuntza.
- Bestetik, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez nahiz beste edozein hizkuntzatan egindako kultur ekintzei edo produktuei buruzko kanpoko komunikazioa euskaraz egin daiteke; hau da: euskara = komunikazio hizkuntza.
- Azkenez, aipaturiko ekintza edo produktuen antolaketa, kudeaketa, prestaketa eta abar euskaraz bidera daiteke; hau da: euskara = lan-hizkuntza.

Hitza erabiltzen duten kultur jardueren kasuan (literatura, antzerkia, ikus-entzunezkoak,...), aipaturiko hiru funtzioetan erabil daiteke euskara; hitza erabiltzen ez duten haietan (artea, musika, dantza eta abar), berriz, badago euskara bigarren eta hirugarren funtzioetan erabiltzerik.

Gauzak horrela, modu batera edo bestera euskara kultura adierazpide guztietan erabil daitekeelako, neurriak hartu beharko dira -kasu bakoitzerako aproposenak aukeratuz-, arian-arian, euskara kultura adierazpide guztietan presente egon dadin.

Nolanahi ere, Kulturaren Euskal Planak, nagusiki, hainbat alderdi izan beharko ditu gogoan euskarari dagokionez: euskarazko sorkuntza, euskara hutseko espazioak bermatzea, zabalkundea nahiz hedapena eta euskarazko produktuen eta zerbitzuen erakargarritasuna, erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna bermatzea.

Euskarazko sorkuntza

Euskaraz bizitzeak mereziko badu, besteak beste, hizkuntza honek "balio erantsiak" eskaintzen dituelako izango da, sorkuntza-mundu propio eta berezia eskaintzen dituelako, besteetan ez dagoena, itzulpen hutsa ez dena.

Euskarari darion sorkuntzari bideak irekitzea, etorkizuneko inbertsio kualitatibo nagusienetakoa izango da. Izan ere, gure etorkizuna, neurri handi batean, gure bizitasun demografiko, sozio-ekonomikoan eta kulturean jotzen dugu, hau da, euskaraz izango dugun eskaintzaren kalitatean, berezitasunean eta eskuragarritasunean (hedapen-politika).

Euskarazko sorkuntza bereziki sustatu behar da, euskararen aldeko politikak bideratuz. Euskaraz sortzea ekintza naturala izan ordez, gehienetan oso modu kontzientean egin beharreko aukera izateaz gain, aparteko ahalegina eskatu ohi du, ahalegin ekonomikoa barne.

Euskarazko kultur produktuek, horrenbestez, aparteko laguntzak eta sustapena behar dituzte, gaztelaniaz edota erdaraz ekoiztutako produktuek merkatuan berez duten proiektzioa eta indarra berdindu ahal izateko.

Hiru mailatan eragin beharko da, hortaz: sortzaile edo kulturgileengan, bitartekariengan (hauen baitan egiten da sarritan sortzaileen aukera) eta hartzaileengan, gero ikusiko dugunez.

Hortaz, euskarazko sorkuntzak alor desberdinetan, literaturgintzan, liburugintzan, prentsan, irradian, telebistan eta kulturgintzan oro har dituen hutsune nabarmenak detektatu beharko dira lehenik. Beraz, orain artekoa aztertzei hasi beharko genuke ikusteko garatu diren ekimenetatik zerk funtzionatu duen eta zerk ez.

Hutsune horietan sorkuntza mekanismoak abiarazteko aukerak eta bideak finkatu beharko dira. Euskarazko sorkuntzatik eratorritako produktu eta zerbitzuek indarra, ludikotasuna, alaitasuna, sakontasuna, interesa... erakutsi eta transmititu beharko dute kontsumitzerik nahi badugu. Edozein kultur produkziok, neurri handi batean, erakargarritasuna berezkoa duen arren, euskarazkoa hala izan dadin ahalegin berezia egin behar da oraindik orain. Izan ere, eremu formaletarako produktuak sortu behar izanagatik edo, olgetarako eta disfrutatzekeko produktu erakargarriei ez baitzaie behar den besteko arretarik egin, agian.

Kulturaren Euskal Planak berbazko eta ez-berbazko kulturbideak berezita, euskararen sorkuntzabideetako proiektuei dagokien tokia aitortzeko politika landu beharko du, orain artekoa berrikusiz.

Euskara hutseko espazioak bermatu

Euskarazko kultur produkzioak berezkotasuna eta berezitasunak behar ditu, Euskal Herrian sortzen den erdarazko kultur produkzioarekiko. Erabilera aurrera egin nahi badugu, euskaraz sortu behar dugu baina baita euskara hutsean ere.

Euskaldun jendeak erreferenteak behar ditu eta horretarako kultur produkzio zabala, erakargarria eta atsegina jarri behar zaie eskura.

Euskarazko sorkuntza-munduan denboran zehar izan dituen eta gaur arte gorde dituen espazio tradizionalak, bertsolaritza kasu, indartu eta sendotu egin beharko ditu; eta horrekin batera, arrazoi ezberdinak direla medio orain artean gutxi jorratuak edo ezezagunak izan zaizkion espazioetan, itzulpenaren bitartekaritza gabe, bere tokia izateko sustapen-politika bideratu beharko da.

Antzerkiaren kasuan, esaterako, nabarmena da euskaraz pentsaturiko eta euskara hutsez landutako antzerkigintzaren hutsunea. Gauza bera esan daiteke zinemaz edo musika estilo batzuek. Euskal Herri barrurako euskara hutseko produktuak beharrezko ditugu, beraz.

Zabalkundea eta hedapena

Une honetan, euskarari sorkuntza askotarikoa dario, askotan kalitate handikoa, baina lan handiak ditu sorkuntza honek euskaldungoan hedatzen, hortik kanpora oihartzuna lortzen, merkatuan ibiltzen.

Euskarazko kalitatezko zerbitzuak eta produktuak eskaini, ezagutarazi, sustatu eta gizarteratzeko mekanismoak bideratu behar ditugu, euskarri eta maila guztietan.

Ezin uka produkzioa bultzatu eta sustatu dela, eta horren lekuko azken urteotan merkaturik ikusten den euskarazko produktuen ugartzea. Urrats hori emanda, areagotu egin beharko bada ere, euskarazko kultur produktuen sustapenaren eta zabalkundearen premia dugu.

Esan bezala, publikoak ahalegin apartekorik egin beharrik izan gabe, euskarazko produktuok eskueran dituela sumatu behar du; horretarako, jakina, merkatu berriak zabaldu behar dira eta orain arte iritsi ez garen sektoreetara iritsi beharko da. Apustu horretan, kultur eragileen apustu ausartagoak eta administrazioen babesak ezinbestekoak dira.

Helburu horretara hurbiltzeko, egun ditugun merkaturik mugak zabaltzera begirako proiektu estrategikoak lantzeaz gain, euskarazko produkzioa lehenetsi beharko dugu eta euskararen erreferentziazko ereduak jorratu beharko ditugu komunikabideetan ere.

Hori horrela, sorkuntza ekoizpenen eta euskarazko produktuen hedapena sustatu behar da bai Euskal Herrian bertan bai gure mugetatik kanpo; horrek ekarri behar duelarik itzulpen-politika egituratzea eta abian jartzea.

Baina aurreko puntuan esandakoarekin lotuta, ez dago dena itzuli beharrik: nazioartean eta beste hizkuntzetara zabaltzeko produktuak behar ditugun bezala, euskal komunitateari erantzun dioten euskara hutseko produktuak ere behar ditugu.

Hala ere, horrekin batera euskal sortzaileen eta nazioartekoen arteko harremana sustatu behar da eta erreferentzia izan gaitezkeen generoetan, erreferentzialtasun hori bultzatu behar da. Horrek dakar euskarazko kulturaren eta euskal esparruaren zabaltzeko euskarazko bitartekoekin ez ezik erdarazkoekin ere kontaktu beharra.

Jakina da, bestalde, oro har kultur produktuen ekoizpena, hedapena, zabalkundea... defizitarioak direla. Hori da hain zuzen erakunde publiko ezberdinetan laguntza-lerroak izateko arrazoiak. Baina, jakina da ere euskarazko kultur produktuen ekoizpena, hedapena, zabalkundea eta abar are defizitarioagoa dela. Hortaz, indarrean dauden laguntza-lerroetan euskarazko produktuetan sortzen den gain-kostua, nola edo hala kontuan izateko eta estaltzeko hizkuntza-irizpidea ezarri beharko litzateke.

Aski ezagunak diren arrazoiak tarteko bai eta begi bistakoak diren euskararen eta euskal literaturaren (eta orobat musikaren, zinearen) pisu demografikoagatik ere, batak zein besteak ekoizpenaren zein kalitatearen ikuspegitik objektiboki merezi duten baino askoz ere gutxiago ezagutuak dira bere lurraldetik kanpo.

Euskararen lur-eremuan (Espainian diren Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea eta Frantzia dagoen Piriniar Atlantikoetako Departamentua) nahiz atzerrian euskara eta euskal kultura sustatzeko, proiektzioa izateko eta lan hori guztia koordinatzeko on litzateke propio eratuak egitura sortzea. Horren helburu izan litezke, besteak beste:

- Batetik, euskara eta euskal literatura atzerrian zabaltzea, euskaraz, gaur egun edota iraganean, sorturiko liburuak beste hizkuntzetara itzuli eta argitaratuz.
- Bestetik, euskarazko zein euskararen irakaskuntza bideratzea eta euskararen erabilera sustatzea nola, gaur egun, euskarak indarrak gutxien edo bizitasunik txikien duen lur-eremuetan hala atzerrian, dela unibertsitateekin, euskalgintzan diharduten elkarteekin edota euskal diasporarekin elkarlanean, batez ere, egun INTERNETek bereziki eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek, orokorrean, ematen dizkiguten erraztasunez eta sarean eskaini beharreko hizkuntza-baliabideez baliatuz.

Oinarrizko abiapuntu horiek jotzen ditugu, beraz, Kulturaren Euskal Planean modu zeharkatzailean gogoan izan beharreko irizpide orokor eta nagusi.

Azkenik, kultur politika eta hizkuntza-politika era koordinatuan bideratzeko, Administrazioko zein sailek edo organok bultzatu behar duen helburu, alor eta neurri horietako bakoitza, zehaztu beharko da batetik, eta betetze-mailaren jarraipena nork egin behar duen, bestetik.

Bestelako zeharkako Planekin egin ohi denari jarraituz, Kultura Sailari legokioke bultzatze-lana, eta hizkuntza-politikaren organo arduradunari, betetze-mailaren jarraipen-lana, hizkuntza-politikaren eta bilakaera soziolinguistikoaren adierazle-sistemaren moduko tresnak erabiliz.

4. Lege-garapena

Hainbat arlo-eremutarako proposamen zehatzagoak azaltzen hasi aurretik, aipamen berezia egin nahiko genioke araubide juridikoari.

Komeni da azpimarratzea komunikabideen arloan badela araubide juridikoa finkatu beharrik, kasu toki-telebista, komunikabide digitalak edo kable bidezko telebista eta irratia. Euskararen Aholku Batzordearen Lege-garapeneko Batzorde-atalak 1999ko abenduaren 10eko saioan Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 4. erabakiari loturik prestatu zuen txostenak adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoa da eremu hauetan euskararen araubidea ezarri behar duena, bai emanaldietako hizkuntzaren erabilpen-kopuruak finkatuz, bai emakidak esleitzeko irizpideetan euskararen erabilpena zehaztuz.

Bestalde, hizkuntza-normalkuntzari laguntzeko pizgarri fiskalak direla eta, horiek onar daitezke lege bidez edo baita lurralde historikoetako foru-arauen bidez ere. Tokian tokiko zerga-ordainketarako pizgarri fiskalei dagokienez, nahiz eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legean lege-oinarri nahikoa izan horretarako, udal ordenantza fiskalak arlo hori arautzeko nahiko ez direla esanez etorri diren bata bestearen ondoren epai-erabakiak, arazo bat sortu dute. Beraz, egoera hori gainditzeko, Eusko Legebiltzarrak lege bat onartu beharko luke, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-korporazioek, bakoitzak bere eskumenen eremuan, euskararen erabilpena sustatu behar dutela esanez, eta, ondorioz, euskararen erabilpena normaltzeko eta bultzatzeko egintzetako hobari eta salbuespen fiskalak ezar ditzaten.

5. Hainbat eqitasmoproposamen

Ondoren, beraz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioena aintzat hartuta eta esandako irizpide nagusiak zehazte-aldera, hainbat arlo-eremutarako proposamen zehatzagoak bildu ditugu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hiru helburu estrategikoei eta Kulturaren Euskal Planean lantzen ari diren beste zenbait esparruri begiratuta.

Nolanahi ere, esan behar ondoren datozen proposamenek ez dutela agortzen, seguruenik, arlo-esparruotan egin ahal izango lirakeen proposamenak, eta arlo horiez gain beste batzuk ere izan daitezkeela.

EBPNren lehen helburu estrategikoan jasotako hiru esparruak irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia dira; hiru esparru horiek euskararen transmisioa bermatzeko ezinbestekoak badira, euskaraz sortutako kultura transmititzeko ere izan daitezke baliagarriak era berean. Elkar eragin horregatik eta elkarri egiten dioten ekarpen horregatik, hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Planak ondoko helburuak lortzen lagun dezake:

- Irakaskuntza alorrean euskaraz bizitzen lagunduko duten “ohiturak” bultzatzeko kultura produktu ugariak ez ezik erakargarriak sortzen eta zabaltzen.
- Euskalduntze-alfabetatzearen curriculum-ean, besteak beste, kultur edukiak kontuan izaten.
- Familietan edota haurtzaindegietan euskararen ahoz ahoko transmisioa lantzeko euskaraz sortutako langaiak sustatzen.

Bigarren helburu estrategikoaren muina, belaunaldi berriek eskolaz kanpoko esparruetan euskara erabiltzeko aukerarik izan dezaten euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea denez gero, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan eta aisian euskararen erabilera sustatzeko EBPNk egiten dituen proposamenak Kulturaren Euskal Planean txertatzea dagokio, kirolari buruzkoak dagoeneko Kirolaren Planean txertatuta daudela kontuan hartuta.

EBPNn garrantzi handia eman zitzaion “Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien” esparruari. Izan ere, erabilera eremu berri eta munta handikotzat jo daiteke informazio eta komunikazio teknologia berriena, eta beraz, bidezko eta zentzuzkoa zen esparru horri eman zitzaion garrantzia ematea. Bestalde, esparru hori goitik behera dagokio Kulturaren Euskal Planean lantzen ari den “Kultura digitalaren” arloari, eta EBPNn ezarri ziren helburu zehatzak eta egitasmo proposamenak bat datoz, oro har, Kulturaren Euskal Planean proposatzen diren jardueraildoekin.

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatze aldera, hizkuntzaren industriak garatu behar ditugu (itzulpengintzaren, ahotsaren eta lokalizazioaren esparruetan batez ere, eta eduki eleanitzen argitaratze eta kudeatze sistemen garapenean). Gainera, teknologia horietarako oinarri diren baliabideak (corpusak, hiztegiak, hizkuntza-prozesatzaileak) sortu behar ditugu. Teknologia horiek zein azpian izango dituzten errekurtsoak baliagarri izango dira euskararen normalizaziorako (lexikoa, terminologia, gramatika eta estiloa), eta hizkuntz erregistro berriak eta praktika onak zabaltzeko idazketa eta itzulpena. Kulturaren Euskal Planera etorrira, baliabide eta teknologia horiek oinarri eta baliagarri izango dira edozein garapen egin nahi dela.

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barnean garatzen ari den euskarazko software librearen tresna baliagarria izan daiteke euskarazko kultura digitalerako. Software-mota hori abian jartzeko premiazkoa da lehendabizi itzultzea eta ondoren ezagutzera ematea, eta eskoletan, erakundeetan, maila pertsonalean, eta abarretan erabilera bultzatzea.
- Herri Erakundeek alor honetan bultzatuko dituzten ekimenen lehentasunak ezartzerakoan, Europa mailako egitasmoetan esku hartzearen garrantziaz gain, euskal gizartearen, eta batez ere, euskararen beharrak hartu behar dira irizpide nagusitzat.
- Euskal Kultura Ondareari buruzko informazioa eta artxiiboak digitalizatu eta hedatu behar dira.
- Komunikabideek eta, bereziki, telebista eta irrati publikoek, eduki sortzaile ere badiren neurrian, edukien kalitatea zaindu eta digitalizazioa ongi antolatu behar dute, euskarari eta euskal kulturari dagokienez probetxurik onena ateratzeko eginkizun eta lankidetzaildoak sakon urratuz.
- Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin behar euskarazko produktuen eskaria gero eta handiago izan dadin herritarren, enpresen eta sektore publikoaren aldetik.
- Euskarazko produktu digitalen sorkuntza eta ekoizpena babestu behar da. Euskarazko kultur produktuak sortzen dituzten enpresei laguntza eman behar zaie beren ekoizpena arlo digitalera eraman dezaten. Merkaturatze-lana, halaber, bultzatu eta publizitatu egin behar. Laguntza edo babes horretarako, mailegu eta zerga tresnak erabil daitezke.
- Sarean euskararen erabilera babestu eta bultzatu egin behar, euskarazko eskaintza ludiko, alai eta erakargarria izate aldera.
- Euskarazko I +G kulturala sustatu behar da, Europa mailako sareetan esku hartuz.

Aisiarako, berriz, aurrerago esandakoari jarraiki:

- Umeek eta gazteek euskaraz irakurri, jolastu, dibertitu, azken finean euskaraz bizi daitezen eskola-eremutik kanpo, euskarazko produktu ludiko erakargarriak ekoiztu behar dira eta horien zabalkundea eta hedapena segurtatu.
- Horrekin batera, euskararen aldeko ekintza soilen orde, inguru hezitzailean aisialdiko zerbitzuak eskainiko dira, herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz.

Euskara Biziberritzeko hirugarren helburu estrategikora etorrira, berau da kulturaren alorrekin harreman zuzenena duena. Batetik, hizkuntza elikatze bide nagusiak (liburuak, ikus-entzunezko hedabideak, sistema eta baliabide multimedia, eta abar), kultura industriaren azpizistemaren barne daudelako, eta bestetik, kulturgintza bera, oro hartuta, euskararen beste elikabide nagusia delako.

Euskara elika dezaketen bide emankorrenetakoak dira kulturaren esparru zabaletan sortzen eta sortuko diren produktu eta adierazpenak. Hori, berez gertatzen den zerbait da, jakina, baina gure kasuan hori ez da nahikoa izan behar ezinbestez. Hori dela eta, elikatze hori gertatzen dela bermatzeko eta ahalik eta emankorrena izateko, hona hemen zenbait ekimen-lerro, arlo desberdinetan sailkatuta.

- Lehenik eta behin, euskaraz sortzen diren kultur produktuen eta zerbitzuen ekoizpena eta eskaintza areagotu egin behar da, bereziki, haur eta gazteei zuzendurikoa. Horretarako, besteak beste, herri- erakundeen arteko koordinazioa behar da eta koordinazio horrek sektoreekin bat joan behar du euskarazko edozein eratako kultur produktuen ekoizpen eta hedapenerako dirulaguntzen politika zehazteko. Halaber, kultur kudeatzaileen eta programatzaileen artean euskarazko produkzioa sustatzeko bideak jarri beharko dira. Beste batzuen artean, kulturaren arloko enpresa txiki eta ertainei zerga eta kredituetarako aringarriak eskain dakizkieke.
- Euskarazko kultur produktuen eta zerbitzuen promozio-bideak berraztertu, ugaltu eta sendotu egin behar dira: komunikabide -publiko zein pribatu-, ikastetxe, komertzio, azoka, liburu denda edota liburutegietan; dirulaguntza bidez dela edo sari bidez dela, eta, behar izango balitz, ohiko sustapen baliabideak ahortzi gabe (datu baseak, katalogoak, komunikabideak, sare komertzialak...) produktuak iragartzeko lekuak, moduak eta momentuak ere egokitu egin beharko dira (emanaldi areto, erakusle eta handizkako saltzaileekin akordioak eginez, eta abar). Horrekin batera, euskal kulturari buruzko informabideak bultzatu behar dira: katalogoak, datu baseak, Interneteko atariak... EITB izan daiteke euskarazko ekoizpenaren sustatzaile nagusi.
- Itzulpen, bikoizketa, postsinkronizazio eta azpitoluen erabilera sustatu behar da, beste hizkuntzetako hiztunek euskaraz sortutako produktuetara sarbidea izan dezaten, bateko, eta euskaldunek beste hizkuntzetan sortutako produktuak euskaraz jasotzeko modurik izan dezaten, besteko.
- Arreta jarri beharko dadin euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez nahiz beste edozein hizkuntzatan egindako kultur ekintza edo produktuei buruzko kanpoko komunikazioa euskaraz bidera dadin: euskara = komunikazio hizkuntza.
- Aurreko atal batean esandakoari jarraiki, euskarazko edukiak esportatzeko modu-bideak asmatu beharko dira.

Liburugintzari eta literatur sorkuntzari loturikoetan, bereziki:

- Euskal liburuaren politika koordinatua garatu behar da, instituzioen jardunbide orokorraren barruan. Koordinazio horretan lankide izango lirateke Foru Aldundiak eta argitaletxeak, eta aukera eman beharko litzaieke sektore ekonomiko eta finantzieroei, guztien artean euskarazko liburuaren argitalpenak dauzkan arazoak gainditzeko.
- Orain arte baino arreta handiagoa jarri behar erosle eta irakurlearengan, irakurtzeko zaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren bidez, eskolen, liburu denden, liburutegien eta liburu-azoken bidez, besteak beste.

- Merkatu-zirkuitu desberdinetarako produktuak ekoiztu, salmentagune bakoitzean egoki izango direnak. Horrekin batera, euskarazko liburuaren promozio bideak aztertu eta sendotu behar dira: saltokietan (liburu denda, paper denda, kioskoak) euskarazko liburuentzako promozio euskarriak bermatuz.
- Euskarazko liburuaren merkaturatze egokia bermatzeko, lehenik aztertu beharko lirateke liburu dendetan non kokatu ohi diren euskal liburuak, zer-nolako den euskal liburuaren eskaintza, nola iragartzen dituzten euskal nobedadeak eta zenbat denboraz, eta zein presentzia duten euskal liburuak.
- Euskal aldizkari eta liburuaren argitaratze, banaketa eta promozio sistema bateratua landu.
- Euskal literatura, eta euskal liburu-produkzioa orokorrean, erbesteratu beharra presentzia handiagoa izan dezan nazioarteko merkatuetan. Horrek dakar euskarazko produkzioaren itzulpen-politika finkatzea eta laguntza-programak aztertzea, atzerriko editoreek euskal literatura eta euskal liburuak itzulita argitaratzea errazteko xedez.
- Diru pizgarrietarako sistema eratu behar da literatur sorkuntzarako, nolabait euskararen sorkuntzak gaztelaniarekiko dituen desabantailak arinduz.

Musikagintza dela eta:

- Sektore diskografikoari laguntzeko, industria eta finantziario politika zehaztu behar da. Kontuan hartu behar da sektore horren ekoizpenaren zati handi bat euskaraz egiten dela.
- Komunikabideak euskal musikaren sustapenean inplikatu behar. Horretarako hainbat modu egon daitezkeela: musika emanaldiak antolatzeke kuotak zehaztuz, publizitate tarifetan beherapenak eskainiz, nork bere errepertorioa erakusteko kuotak finkatuz, kontsumorako sentiberatze kanpainak antolatuz, telebista publikoetan astero programa tematikoak eratuz, irratiaren emanaldiak sustatuz, aldizkari eta diskogintzako etxeei laguntzak emanez. Halaber, euskal diskografiari eta programa espezializatuei promozio handiagoa eman behar zaie EiTBN. Aldizka akordioak egin behar dira sektorearekin eta bestelako bitartekari pribatuekin.
- Euskal musikaren salmenta bermatze aldera –nobedadeak eta katalogoa–, saltegi handiekin hitzarmenak egin daitezke, besteak beste.
- Euskal musika ere esportazio gai izan daiteke, horretarako euskal musikaren berezitasunak erakutsi behar dira, geure nortasuna erakustearen aldeko apustua eginez. Merkatu berrietara irekitze horri begira, nazioarteko feria, jaialdi eta merkatuetara joaten diren talde eta enpresei laguntzak eta prestakuntza eskaini behar zaizkie.

Ikus-entzunezkoei loturikoetan:

- Herri-agintek ahalegin berezia egin behar dute ikus-entzunezkoetan euskararen presentzia bermatzeko, orain arte hartu diren neurriak berrikusi eta, hala badagokio, berriak planteatuz: programazioetako hizkuntza-kuotei buruzkoak, emisorak esleitzeko hizkuntza-irizpideei buruzkoak, euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzei buruzkoak. Herri-aginte guztiek (EAEkoek nahiz Estatuko Administrazioaren menpekoek) telebista eta irrati-tako programazioan euskararen erabilera bermatu beharko dute batetik, eta euskaraz sortutako kulturaren transmisioa, bestetik.
- Ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Sail desberdinek (Kultura, Industria, Ogasuna, Hezkuntza eta Lana) politika integral bat antolatu behar dute, sektorearekin elkarlanean sektoreko politikak eta ikus-entzunezko kultur produktuak bateragarri eta erabilgarri bihurtzeko.
- Ikus-entzunezkoetako esatari-kazetarien euskarazko prestakuntza bermatu behar da.
- Euskaraz egindako ikus-entzunezko materiala sustatu behar da komunikabideetan. Horretan EiTbK esku hartze aktiboa izan behar du. Horri lotuta, ETB1erako euskarazko telebista ekoizpenari lehentasuna eman behar zaio, kalitatea bermatuz.
- Euskaraz oso-osorik egindako zinemagintzaren aldeko apustua egin behar da. Zinema eta telefilmak euskarara bikoizteko erraztasunak eman behar dira eta dagoen ekoizpena areagotu. Gutxiengo eskaintza ziurtatu behar da euskarazko filmak etenik gabe eman ahal izateko, film erakustaldiak sustatu behar dira eta urtero zinema eta telefilmak ekoiztu euskara hutsean.
- Euskarazko film emanaldien etekin txikiak, ezinbestez eskatzen du emanaldiak eskaintzen dituzten lokalekin hitzarmenak egitea, eta VHS eta DVDen banaketa eta salmentarako jabeen pizgarriak eskaintzea. Behar-beharrezkoa da handizkako saltzaileekin, bideoklubekin eta saltegi handiekin akordioak egitea, euskarazko filmak erakuslehoetan eta apaletan ager daitezen.
- EiTbK euskarazko filmen gutxiengo bat bermatu behar du bere emanaldietan, batez ere gazteentzat antolatzen direnetan.

Bukatzeko, liburutegiei eta agiritegiei dagokienez:

- Liburutegiekin eta agiritegiekin zerikusia duten alderdi guztietan euskararen erabilera bermatzeko arautegia eta lanabesak garatu behar dira.
- Liburutegien bidez, udalerrri guztietan euskarazko liburu produkzioa jarraitzeko aukera bermatu behar da.